

EBOLA KASU BATEN SUSMOA DELA ETA, IKASTETXE BAT ALDI BATERAKO ITXI BEHAR DENERAKO JARRAIBIDEAK

Zuen ikastetxeko ikasle/langile bat aztertzen ari dira Ebola kasu bat ote den susmopean

Oso aukera gutxi daude ikertzen ari diren kasuak (susmagarriak) Ebola kasuak izateko. Ebola ez dela ziurtatuko duten analisien emaitzak, luzeenera jota, 72 ordu barru jakingo dira.

Ebolaren eraginpean dauden pertsonak sintomak (sukarra, buruko mina, beherakoa, goragalea) dituzten unetik aurrera soilik dira infekziosoak. Behin sintomak dituztenean, gorputzeko jariakin guztiak (odola, usuria, gorotzak, okadak, izerdia, listua eta hazia) dira infekziosoak eta objektuak kutsa ditzakete.

Pertsona susmagarria erreferentziako ospitalera eramana izan da; une horretatik aurrera ondorengo neurri hauek hartu beharko dira harik eta Ebolaren diagnostikoa baztertzen den arte:

- Ez dira ez ukitu eta ez garbitu behar gorputzeko jariakinekin kutsatuta dauden gainazalak, objektuak eta arropak.
- Ikertzen ari diren kasuak, sintomak izan ostean, ukitu dituelako potentzialki kutsatuak eduki ditzakeen eremuak saihestu egin behar dira, horien artean, konketak, komuneko urari jaregiteko kateak eta ukimen handiko beste gainazal batzuk, hala nola ateen eskutokiak eta telefonoak.
- Horrek kasu susmagarria egon den ikasgela eta/edo bulegoa ixtea eskatuko du, baita gaixoak erabilitako komuna ere.

Aurrez aipatutako neurriak hartzeko ikastetxe batean sor litezkeen zailtasunak kontuan hartuta, ikastetxea ixtea erabaki da harik eta kasu susmagarriaren analisien emaitzak ezagutu arte, hiru egun, luzeenera jota.

Kasu susmagarriaren ebaluazioa egin ostean:

- Ebola ez dela ebazten bada, ez da neurri berezirik beharko garbiketa eta desinfekzioa egiteko. Zaborra ohiko bideetatik bota ahalko da.
- Oso gertagaitza den arren, susmagarriak Ebola duela berresten bada, Epidemiologiatik garbiketa enpresa espezializatu bat igorriko da.

2014ko urriaren 31n onartua

Batzordearen Idazkaritza